

Hauskorrak



[Iñaki Lazkano](#) / Arabako Alea 2020-03-31



Arg: Ttipi Ttapa/ Erran

"Ez dugu defentsa kolektiborik, eta lapikokadak edo txalo zaparradak gure beldurraren isla baino ez dira".

Ataka larrian jarri gaitu ditzosozko birusak: isolamendua ala kutsapena, etxeratzea ala ospitaleratzea, denok ala inor ez, dena ala ezer ez...

Eta hementxe gaude norbera bere egoerari aurre egiten, iskinik egin gabe, ihesbiderik gabe, eta hainbat kezkarri edo ardurari aurre egiten. Ispiluaren aurrean jarri gaitu mundu mailako mehatxu honek eta zalantza dut onik aterako garen, azterketa gaindituko dugun.

Egunerokoan, ingurukoen imajinazio ahalmenek txundidura eta barregura eragiten didate, maila berean malkoa aterarazi elkartasun ekintza eta keinuek; baina badira eguneko ordu batzuk, batez ere albistegiak ikusten xahutzen ditudan minutu eta orduak, kezka eta amorrua baino ez didatenak sortzen, sentiarazten.

Shock egoeran gaude, *shock* egoeran jarri gaitu birus honek, jarri gaituzte agintariak, eta holakoetan ezer onik ez epe ertain eta luzera. Naomi Klein kazetariak ederto azaldu zigun *The Shock Doctrine* liburu ezagunean.

Akaso *shock* egoera hau, desastre hau, ez al da izango sistema neoliberal kapitalista honen birrantolatze anker berri bat?

Denborak emango edo kenduko digu arrazoia hemendik aurrera, baina egon gaitezen adi eta prest datorrenari aurre egiteko: kaleratzeak, soldata jaitzierak, gastu publikoaren murrizketa, bazterkeria soziala etab.

Oraingoz lortu dute kaleak hiritarrez hustu eta poliziez betetzea, imajina daiteke egoera distopikoagorik? Zer izango da hurrena, polizia-kontrol digitalaren diktadura? Kasu!

Hauskorrak gara, eta are gehiago egin gaituzte azken hamarkadetan, ez dugu defentsa kolektiborik, eta lapikokadak edo txalo zaparradak gure beldurraren isla baino ez dira.

Atzo Petti handiak bere *Hauskorrak* kanta abestu zigun, zer pentsatua eman zidanez hemen kantuaren hitzak apur bat moldatua:

Izuak bitan egin dit bisita gaur, eta biluzik harrapatu nau bitan

Ezkutaleku bila hari nintzen eta ez dut ahanzteko aukerarik...

Zein hauskorra naizen

Zein hauskorra haizen

Zein hauskorrak garen

Hala ere, eta gure erresistentzia ahalmenean sinestuta,

Bertze baten itzultzeko errango diogu izuari,

gaur ez baitugu harentzat arrenkura bertzerik